

BALDINTZAK

- 1 ▶ Egile bakoitzak **BI LELO** aurkeztu ahal ditu gehienez ere.
- 2 ▶ Leloak **ORIGINALAK** izango dira.
- 3 ▶ Testua **LABURRA** eta **ERAKARGARRIA** izango da, eta gure programaren helburuarekin bat etorriko da.
- 4 ▶ **AURKEZTEKO EPEA**: azken eguna **martxoaren 15ean**, eguerdiko **13:30era arte**.
- 5 ▶ **AURKEZTEKO LEKUA**: Ulibarri Euskaltegiko postontzian -idazkaritzaren ondoan Kokatuta- edo info@mintzakide.org helbidera bidalita.
- 6 ▶ **INFORMAZIOA**: info@mintzakide.org edota 688 689 016 telefonoan
- 7 ▶ **IDENTIFIKAZIOA**: Ulibarri Euskaltegiko postontzian aurkezten diren lanak egilearen izenperik gabe aurkeztu beharko dira gutun-azal itxi batean. Gutun-azal horren barruan egilea nor den jakiteko datuak adieraziko dira: izen abizenak, telefono zenbakia eta NANaren zenbakia .
- 8 ▶ **SARIA**: lehiaketaren irabazleak Bilboko ELKAR MEGADENDA liburu-dendan gastatzeko 100€ko erosketa-txartela jasoko du.
- 9 ▶ **SARIRIK EMAN BARIK UTZI DAITEKE**, aurkeztutako leloek gure programaren helburuarekin bat etorri ezean. Kasu horretan, epaimahaiak erabakiko du zer egin.
- 10 ▶ Leloetan gramatika-akatsik edota ortografiari buruzko akatsik balego, epaimahaiak **BEHARREZKOAK DIREN ALDAKETAK AGINDU AHAL IZANGO DITU**, egileari aldeztu aurretik galdetuta eta berarekin lankidetzan.
- 11 ▶ **EPAIMAHAIEN AHALMENA**
Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utz ditzake lanak:
 - Autorea nor den zalantzan dagoenean.
 - Pertsonen duintasunaren aurka doazenean.
 - Beste lelo batzuen plagiotzat hartzen dituenak eta plagiotzat jo ez arren, beste lelo batzuetan inspiratukoak izanik eta haiekin dituzten berdintasunez epaimahaia jabeturik, originaltasunik ez dutela erabakitzen duenean.

- 12▶ EPAMAHIAREN ERABAKIA** apelaezina izango da. Hala ere, epaimahaiak erabakia berriro aztertu dezake eta baliorik gabe utzi aurreko puntuko gorabeheraren bat gertatzen denean.
- 13 ▶** Mintzakide programak irabazle suertatzen den leloaren **JABETZA** ez ezik, jendaurreko komunikaziorako, kopiatzeko eta banatzeko eskubideak ere eskuratuko ditu: eskubide horiek **MINTZAKIDE PROGRAMARENAK** baino ez dira izango.
- 14▶** Epaimahaiak aukeraturako leloa Ulibarri Euskaltegiko ohar-tauletan, gure web-orrialdean eta gure programa **JENDARTERATZEKO BEREN-BEREGI SORTUTAKO PUBLIZITATEAN JARRIKO DA IKUSGAI.**
- 15▶ LEHIAKETAN PARTE HARTZEAK BALDINTZA GUZTI- GUZTIAK ONARTU DIRELA ESAN NAHI DU**

MINTZAKIDE
Programa